



EBAZPENA, 2017ko IRAILAREN 27koa, HEZKUNTZA SAILAREN LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN ETA MAISU-MAISTREN KIDEGOETAKO PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIOEN EBALUAZIOAN JARDUNGO DUTEN KALIFIKAZIO BATZORDEAK IZENDATZEN DIRA.

2017ko irailaren 7ko Hezkuntza Sailaren Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpenaren bitartez arautu da Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Maisu-maistren kidegoetan praktiketako funtzionario izendatutako pertsonak 2017/2018 ikasturtean egin behar duten praktikaldia.

Aipatutako ebazpenan ezarritakoari, hots, praktikaldiak ebaluatu behar dituzten Batzordeen osaera eta horien argitarapena arautzen duenari, jarraituz,

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoetako praktiketako funtzionarioen ebaluazioan jardungo duten Kalifikazio Batzordeetako kideak izendatzea. Horien osaera ebazpen honen eranskinean agertzen da.

Bigarrena. Izendapen horien berri ematea Hezkuntza Saileko interneteko helbideetan: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/> eta <http://www.irakasle.eus>.

Hirugarrena.- Kalifikazio Batzordeetako kideei aplikatuko zaie urriaren 1eko 40/2015 Legearen, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa, 23. eta 24. artikuluetan abstentzioari eta ezespenari buruz ezarritakoa.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzu Sailburuordeari, hilabeteko epean, argitara eman eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko irailaren 27a.

KONRADO MUGERTZA URKIDI
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA



ERANSKINA

MAISU-MAISTREN KIDEGOA

Batzordeburua: María Jose Morgado Matador

Kideak: Carmen García Gutiérrez
Rosario Gracia Navarro
Luis Mari Del Valle García
Aimar Larrazabal Santos
Begoña Echevarria Sesmilo

BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGOA

Batzordeburua: Arantza Laca Mugarza

Kideak: Jose Javier Huerta Elustegui
Idoia Bernabeu Larre
María Asunción Urmeneta Galfarsoro
Sebastian Galdós Erriondo
Jose M^a Elvira Calzada